

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### LURRALDE OREKAREN SAILA

#### Foru Gobernu Kontseiluaren 382/2020 Erabakia, abuztuaren 4koa. Onestea Bergondako Administrazio Batzarreko kide kudeatzaileen izendapena

Arabako Lurralde Historikoko Hauteskunde Batzordeak foru aldundi honi jakinarazi dio Bergondako Administrazio Batzarrean bi kargu hutsik daudela, aipatutako administrazio batzarreko lehendakariak eta lehenengo kideak karguari uko egin diotelako. Gainera, kargu horiek ezin izan dira bete, ordezko hautetsirik ez dagoelako. Horrenbestez, Aldundiari eskatzen dio izendapenak egin ditzala kargu horiek betetzeko.

Horiek horrela, Arabako Lurralde Historikoko Kontzejuetako Erregidore eta Kideak Hautatzeko Foru Arauak 19. eta 21. artikuluetan xedatutakoarekin bat etorritik, eta Arabako Administrazio Batzarretako batzorde eta kide kudeatzaileak izendatzeari, eratzeari eta lanean aritzeari buruzko arauak ezarri zituen Arabako Foru Aldundiaren martxoaren 26ko 829/1985 Erabakiak bigarren apartatuan xedatutakoaren arabera, egoki jotzen da kide kudeatzaileak izendatzea, administrazio batzar horretan dauden kargu hutsak betetzeko, hauteskundeak egin arte.

Diputatuen nagusiaren uztailaren 5eko 324/2019 Foru Dekretuak sail honi ematen dio administrazio batzarretako hauteskunde araubidearen jarraipena egiteko ahalmena, beste eginkizun batzuen artean. Horren ondorioz, erakunde honi dagokio kargu horiek beteko dituzten pertsonak proposatzea, Foru Aldundiak izenda ditzan.

Horregatik, Lurralde Orekaren Saileko foru diputatuaren proposamenez, eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, honako hau

#### ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa. Bergondako Administrazio Batzarreko kide kudeatzaile izendatzea Antonio Atxurra González (lehenengo kidea) eta David Fernández Guantes (bigarren kidea).

Bigarrena. Martxoaren 26ko 829/1985 Erabakiak bigarren apartatuan aurreikusitakoaren arabera, erregidore lehendakariak horretarako beren-beregi deituko duen bilkura berezian jabetuko dira karguaz aipatutako kide kudeatzaileak. Erabaki hau jaso eta hurrengo zazpi egun baliodunen barruan egin behar da bilkura hori.

Bilkura horretako akta bilkura egin eta hurrengo hiru egunen barruan bidaliko zaio Arabako Foru Aldundiari.

Hirugarrena. Lurralde Orekaren Sailak ALHAOn argitara dezala erabaki hau.

Laugarrena. Erabaki hau behin betikoa da administrazio bidean, eta beraren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsioa jar daiteke zuzenean, Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, bi hilabeteko epean, erabakia ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Hori guztia, bat etorritik Administrazioarekiko Auzietarako Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legeak 46. artikuluan xedatutakoarekin.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko uztailaren 21a

*Diputatu nagusia*

**RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE**

*Lurralde Orekaren Saileko foru diputatua*

**IRMA BASTERRA UGARRIZA**

*Lurralde Orekaren zuzendaria*

**JESÚS MARÍA GUINEA DÍAZ DE OTALORA**